ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko azaroaren 25a, ostirala • 132 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Behin betiko onartzea "N-240 errepidea 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura egokitzeko trazadura" proiektuak eragiten dituen ondasun eta eskubideak eta dei egitea proiektu horrek eragiten dituen eskubide eta ondasunen titularrei aldez aurreko aktak, okupazio akta eta balio justuaren akta egiteko**

Diputatuen Kontseiluak, abenduaren 3an egindako bilkuran, 716/2016 Erabakia onartu zuen. Hona hemen testua hitzez hitz:

"Behin betiko onartzea "N-240 errepidea 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura egokitzeko trazadura proiektua"k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Haiek okupatu beharra adieraztea. Desjabetze espedientea izapidetzea, presazko prozeduraz. Kreditu atxikipena.

Apirilaren 15ean egindako bilkuran hartu zuen Diputatuen Kontseiluak 228/2014 Erabakia, zeinaren bidez behin betiko onartu zen proiektu hori. Halaber, hasierako onarpena eman zion proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari eta agiri hori jendaurrean jarri zuen.

Izapide hori bete egin da, aipatutako zerrenda Legutio eta Zigoitiko Udalen iragarki taulan (bertan baitaude eragindako finkak) eta ALHAO (50 zenbakia, aurtengo maiatzaren 7koa) argitaratu baitzen, bai eta hil horretako 13an, "El Correo Español, el Pueblo Vasco" eta "Diario de Noticias de Álava" egunkarietan ere. Halaber, inguruabar horren berri eman zaie eragindako finken jabeei.

Jendaurreko informazio aldian alegazio idazkiak aurkeztu, eta Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 16ko 314/2015 Erabakiaren bidez erantzun ziren.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak txosten bat aurkeztu du proposatuz onartzeko proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra adierazteko, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Jarduketa hori azaroaren 23ko 307/2010 Dekretuaren bidez onartutako EAEko 2005-2016 aldirako Bigarren Errepide Plan Orokorraren berrikusketan dago jasota; hain zuzen ere, "obra nagusi" programaren eta 'egokitze' azpiprogramaren barruan; hortaz, erakunde honek nahitaez gauzatzekoa da. Halaber, maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duenaren, hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoa aplikatu beharra dago. Hirugarren xedapen gehigarri horrek xedatzen du 'errepide plan orokor bat onartzeak berekin ekarriko duela nahitaezko desjabetzearen legerian programatutako jardunek eragindako ondasun eta eskubideak presaz okupatu beharra dagoela adieraztea'; hortaz, Nahitaezko desjabetzearen Legeak 52. artikuluan jasotako prozeduraren bidez izapidetu ahal da desjabetze espedientea.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa) 7. eta 8. artikuluetan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, desjabetze ondorioetarako onura publikokotzat jotzea berekin daramaten proiektuak eta desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onartzeko eskumena duen organoa Diputatuen Kontseilua da, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 8.26) artikuluan ezarritakoaren ondorioz.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak txostena egin du beharrezko kreditua dagoela esanez.

Eta horregatik guztiagatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea “N-240 errepidea 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura egokitzeko trazadura proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari (honekin batera doan eranskinean jaso da).

Bigarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Hirugarrena. 1.527.520,70 euroko kreditu esleipena egitea Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako aurrekontuko 50106 5300 6210101 “Desjabetzeak” partidaren kontura, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua ordaintzetik sortutako diru kopuruei aurre egiteko. Hona hemen nola banatuko den: 300.000,00€ euro 16.1.16 taldearen kontura (xedapen erreferentzia: 16.1.16.105-4841/000) eta 1.227.520,70 euro 16.3.17 taldearen kontura (xedapen erreferentzia: 16.3.17.105-209/000).

Laugarrena. Nahitaezko desjabetzearen Legearen 52. artikuluan arautútako presazko prozeduraz izapidetzea desjabetze espedientea.

Bosgarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen abenduaren 23ko 21/2015 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren 2016rako aurrekontua gauzatzekoak, bere 16. artikuluan.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotako finkei dagokien balio justuaren kopurua ordain dezala. Zenbateko hori Desjabetzapen Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori gorago aipatutako lerro eta xedapen erreferentzien kontura egingo da, legeak ezarritako epean.”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikuluak).

Halaber, aipatutako proiektuak eragindako eskubideen titularrei dei egiten zaie okupazioaren aurreko aktak eta, hala badagokio, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Egintza hori 2016ko azaroaren 28tik eta 2017ko urtarrilaren 20ra egingo da, 10:00etatik aurrera, Legutioko Udalak eta Zigoitiako Udalak (Ondategi) dauzkaten lokaletan. Horren berri interesdun bakoitzari emango zaio, dagokion banakako zitazio zedularen bidez (Nahitaezko desjabetzearen Legearen 52-2 artikulua).

Ekintza horretara, interesdunak berak azaldu beharko dira, edo beraien izenean jarduteko behar bezala baimendutako pertsona bat, haien ordezkari moduan, beren titulartasunaren egiaztagiriak ekarriz (eskritura publikoak zein pribatuak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak, eta abar); gainera, egokia baderitzote, beren peritu, abokatu edo notario batek lagunduta agertu ahal izango dira, kostuak beren gain direla.

Halaber, eta Nahitaezko desjabetzearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz, interesdunek nahiz argitaratutako zerrendatik kanpo utzi diren eskubide errealen nahiz interes ekonomikoen titularrek egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote idatziz Arabako Foru Aldundiari (Probintzia plaza 4, 6. solairua, 01001 Gasteiz) okupazioaren aurreko aktak egiteko adierazi den egunera arte, baldin eta ukitutako ondasun eta eskubideak zerrendatzean okerrik egin bada eta horiek zuzentzeko bada.

Balio beza, orobat, argitalpen honek jakinarazitzat jo daitezen jakinarazpena egin ezin izan zaien pertsona eta erakunde guztiak, zein diren edo nora jakinarazi behar zitzaien jakiterik izan ez delako edota, jakinarazpena egiten saiatu arren, gauzatu ezin izan delako (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena, 59.4 artikulua).

Lege oharra. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestekoak, xedatutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiak jakinarazten dizu iragarki honetan agertzen diren datu pertsonalak erakunde honek desjabetzeko espedienteak kudeatu eta tramitatzeko daukan Desjabetze Espedienteak izeneko fitxategi mistoaren osagai direla. Datu horiek ez zaizkie emango hirugarrenei, salbu eta legeak ezarritako kasuak badira tartean. Aipatutako lege organikoak datuetan sartzeko, datuak ezerezteko eta zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak aitortzen ditu; haiei buruz kontsulta edo azalpenen bat egin nahi baduzu, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegora (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba) jo beharko duzu.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 16a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria*
*MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

N-240 ERREPIDEA, 16,700 KILOMETROTIK 19,900 KILOMETRORA, EGOIKITZEKO TRAZADURA PROIEKTUA
PROYECTO DE TRAZADO DEL ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA N-240 ENTRE EL P.K. 16,700 Y EL P.K. 19,900

Esp. / Expte. 14/10

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA | KATASTROKO DATUAK | | UDALA | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA M2 | | | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLÍGONOA | LURSAILA | | | | BEHIN-BETIKOA | BEHIN-BEHINEKOA | ZORTASUNA | | |
| | | DATOS CATASTRALES | | | | | SUPERFICIE AFECTADA M² | | | | |
| Nº FINCA | NOMBRE DEL PROPIETARIO | POLÍGONO | PARCELA | AYUNTAMIENTO | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | DEFINITIVA | TEMPORAL | SERVIDUMBRE | DÍA | HORA |
| 84 | BITERI GARMENDIA, ENRIQUE<br>VITERI GARMENDIA, MIGUEL ANGEL | 1 | 37 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1828 | 96 | Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 31 | 28/11/16 | 10:00 |
| 59 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE ELOSU | 1 | 1126 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 4682 | | | 28/11/16 | 10:45 |
| 62 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE ELOSU | 1 | 1088 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO<br>BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 1699<br>2543 | | | 28/11/16 | 10:45 |
| 71 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE ELOSU | 3 | 17 | LEGUTIO | BASOBERA / MONTE BAJO | | 946,27 | | | 28/11/16 | 10:45 |
| 93 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE ELOSU | 3 | 69 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 822 | 56 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 11<br>Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 7 | 28/11/16 | 10:45 |
| 86-050 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE ELOSU | 1 | 1103 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 257 | | | 28/11/16 | 10:45 |
| 65 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, ISABEL | 3 | 326 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1206 | | | 29/11/16 | 10:00 |
| 76 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, ISABEL | 3 | 621 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 730 | | | 29/11/16 | 10:00 |
| 92 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, ISABEL | 3 | 70 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 626 | 91 | Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 32 | 29/11/16 | 10:00 |
| 90 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, FRANCISCO | 3 | 20 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1996 | 335 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 29<br>Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 85 | 29/11/16 | 12:00 |
| 94 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, FRANCISCO | 3 | 15 | LEGUTIO | PINUDIA / PINAR | | 455 | 207 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 63<br>Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 5 | 29/11/16 | 12:00 |
| 95 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, FRANCISCO | 3 | 14 | LEGUTIO | ETZE-LARREA / ERIAL A PASTOS | | 467 | 22 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 7 | 29/11/16 | 12:00 |
| 96 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, FRANCISCO | 3 | 19 | LEGUTIO | ETZE-LARREA / ERIAL A PASTOS | | 259,10 | | | 29/11/16 | 12:00 |
| 98 | FERNANDEZ DE LARRINOA GARCIA DE CORTAZAR, FRANCISCO | 3 | 12 | LEGUTIO | ETZE-LARREA / ERIAL A PASTOS | | 7389 | | | 29/11/16 | 12:00 |
| 1 | SAENZ DE VITERI SAENZ DE VITERI, J. LUIS | 1 | 236 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 92 | | | 30/11/16 | 10:00 |
| 2 | SAENZ DE VITERI SAENZ DE VITERI, J. LUIS | 3 | 263 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 504 | | | 30/11/16 | 10:00 |
| 6 | SAENZ DE VITERI SAENZ DE VITERI, J. LUIS | 3 | 635 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1094 | | | 30/11/16 | 10:00 |
| 8 | SAENZ DE VITERI SAENZ DE VITERI, J. LUIS | 3 | 254 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 257,20 | | | 30/11/16 | 10:00 |
| 10 | SAENZ DE VITERI SAENZ DE VITERI, J. LUIS | 3 | 255 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 735 | 130 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 44 | 30/11/16 | 10:00 |
| 31 | SAENZ DE VITERI SAENZ DE VITERI, J. LUIS | 3 | 208 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 576 | 173 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 24<br>Aireko elektrikoa-14m Aérea Eléctrica-14m 367 | 30/11/16 | 10:00 |
| 83 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, MIGUEL | 3 | 26 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 652 | | | 01/12/16 | 10:00 |
| 86-070 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, MIGUEL | 1 | 1101 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 282 | | | 01/12/16 | 10:00 |
| 88-090 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, MIGUEL | 1 | 19 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 143 | | | 01/12/16 | 10:00 |
| 89-090 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, MIGUEL | 1 | 1491 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 72 | | | 01/12/16 | 10:00 |
| 86-080 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, MIGUEL<br>ARMENTIA MADINA, JULIA | 1 | 1100 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 22 | | | 01/12/16 | 10:00 |
| 64 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, RUFINO | 3 | 223 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 350 | | | 01/12/16 | 10:00 |
| 85 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, RUFINO | 3 | 22 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 785 | 216 | Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 71 | 01/12/16 | 10:00 |
| 87 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, RUFINO | 3 | 21 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 246 | 72 | Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 24 | 01/12/16 | 10:00 |
| 87-090 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, RUFINO | 3 | 637 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 558 | | | 01/12/16 | 10:00 |
| 89 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, RUFINO<br>ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, MIGUEL | 1 | 1110 | LEGUTIO | ETZE-LARREA / ERIAL A PASTOS | | 0 | 64 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 21 | 01/12/16 | 10:00 |
| 79 | GARMENDIA BERRIOZABAL, F. JAVIER | 3 | 25 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1030 | | | 02/12/16 | 10:00 |
| 78 | GARMENDIA BERRIOZABAL, M. CARMEN | 1 | 34 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 4037 | 246 | Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 87 | 02/12/16 | 10:00 |
| 72 | GARMENDIA BERRIOZABAL, M. CARMEN<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, M.PILAR<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, F.JAVIER | 3 | 16 | LEGUTIO | BARATZEA / HUERTA | | 664,71 | | | 02/12/16 | 10:00 |
| 73 | GARMENDIA BERRIOZABAL, M. CARMEN<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, M.PILAR<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, F.JAVIER | 3 | 600 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 1478 | | | 02/12/16 | 10:00 |
| 74 | GARMENDIA BERRIOZABAL, M. CARMEN<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, M.PILAR<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, F.JAVIER | 3 | 31 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1789 | 173 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m 57 | 02/12/16 | 10:00 |
| 81 | GARMENDIA BERRIOZABAL, M. CARMEN<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, M.PILAR<br>GARMENDIA BERRIOZABAL, F.JAVIER | 1 | 36 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1260 | 120 | Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m 47 | 02/12/16 | 10:00 |

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA | KATASTROKO DATUAK | | UDALA | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA M2 | | | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLÍGONOA | LURSAILA | | | | BEHIN-BETIKOA | BEHIN-BEHINEKOA | ZORTASUNA | | |
| Nº FINCA | NOMBRE DEL PROPIETARIO | DATOS CATASTRALES | | AYUNTAMIENTO | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | SUPERFICIE AFECTADA M² | | | DÍA | HORA |
| | | POLÍGONO | PARCELA | | | | DEFINITIVA | TEMPORAL | SERVIDUMBRE | | |
| 77 | BEITIA OCHOA DE EGUILOR, M. ANGELES<br>BEITIA OCHOA DE EGUILOR, J. ANGEL<br>BEITIA OCHOA DE EGUILOR, M. MILAGROS<br>BEITIA OCHOA DE EGUILOR, M. ASUNCION | 3 | 29 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 756 | | | 20/12/16 | 12:30 |
| 99 | ECHEVARRIA GANZABAL, MOISES<br>ECHEVARRIA GANZABAL, JESUS | 5 | 1063 | ZIGOITIA | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 183 | | | 16/01/17 | 10:00 |
| 100 | URQUIOLA SAEZ, M. CARMEN | 4 | 402 | ZIGOITIA | MAKALDIA / CHOPERA | | 2330 | | | 16/01/17 | 10:45 |
| 27 | SOTO DELGADO, AMAIA<br>SOTO DELGADO, ASIER | 3 | 222 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 1610,16 | | | 17/01/17 | 10:00 |
| 24 | JORGE EGUINO, EBER<br>JORGE EGUINO, ARITZ | 3 | 220 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO<br>BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 1412,33<br>1786,25 | | | 17/01/17 | 10:45 |
| 16 | MARTELO GOICOLEA, PABLO<br>MARTELO ITURRIAGA, GREGORIO<br>MARTELO GRISALEÑA, JUAN CARLOS<br>MARTELO GRISALEÑA, FELIPE SIMON<br>MARTELO IDIGORAS, F. JAVIER<br>MARTELO IDIGORAS, M. INES | 3 | 235 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 682 | | | 17/01/17 | 11:45 |
| 60 | CASTAÑARES SAEZ, ARACELI | 3 | 225 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1319 | 93 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m<br>29 | 17/01/17 | 12:30 |
| 61 | CASTAÑARES SAEZ, ARACELI | 1 | 1087 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 2604 | | | 17/01/17 | 12:30 |
| 34 | ALONSO GUERRA, GREGORIO | 3 | 181 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 172 | | | 18/01/17 | 10:00 |
| 67 | IGLESIAS LOPEZ DE ARECHAGA, INMACULADA | 1 | 33 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1687 | | | 18/01/17 | 10:45 |
| 86-090 | ANDRES GUTIERREZ, MERCEDES<br>ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, J.LUIS | 1 | 1099 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1348 | | | 18/01/17 | 12:30 |
| 86 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, J.LUIS | 1 | 38 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 441 | | | 18/01/17 | 12:30 |
| 88 | ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES, J.LUIS | 1 | 39 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 93 | | | 18/01/17 | 12:30 |
| 49 | ORTIZ DE MENDIVIL AMESTOY, JUAN MIGUEL<br>ORTIZ DE MENDIVIL AZPIAZU, IDOIA<br>ORTIZ DE MENDIVIL AZPIAZU, IÑAKI<br>ORTIZ DE MENDIVIL AZPIAZU, MIKEL | 1 | 1131 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 2435 | 172 | Aireko elektrikoa-14m Aérea Eléctrica-14m<br>784 | 19/01/17 | 10:00 |
| 50 | ITURRIAGA ORTIZ DE ZARATE, JUAN CRUZ | 3 | 149 | LEGUTIO | PINUDIA / PINAR | | 784 | | | 19/01/17 | 10:45 |
| 69 | SANCHEZ SANCHEZ, FAUSTINO | 1 | 32 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 553 | | | 19/01/17 | 11:45 |
| 33 | TRIANA MANCHADO, MARINO | 3 | 182 | LEGUTIO | PINUDIA / PINAR | | 2159 | | | 19/01/17 | 12:30 |
| 35 | TRIANA MANCHADO, MARINO | 3 | 180 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 2202 | | | 19/01/17 | 12:30 |
| 53 | URBANIZADORA CASTELLANA S.A. | 1 | 1129 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 429 | 298 | Aireko elektrikoa-14m Aérea Eléctrica-14m<br>1410 | 20/01/17 | 10:00 |
| 66 | VAZ SANTOS, F. IGNACIO | 3 | 229 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 1835 | 181 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m<br>19 | 20/01/17 | 10:45 |
| 54 | URQUIOLA SAEZ, M. CARMEN | 1 | 1128 | LEGUTIO | ETZE-LARREA / ERIAL A PASTOS | | 3562 | | | 20/01/17 | 11:45 |
| 18 | SAENZ DE VITERI AGUIRREGAVIRIA, FRANCISCO | 3 | 230 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 459,15 | | | 20/01/17 | 12:30 |
| 26 | SAENZ DE VITERI AGUIRREGAVIRIA, FRANCISCO | 3 | 209 | LEGUTIO | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | | 2710 | 423 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m<br>70<br>Aireko elektrikoa-14m Aérea Eléctrica-14m<br>987 | 20/01/17 | 12:30 |
| 91 | DESCONOCIDO | 3 | 18 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO<br>HIRI LURRA / URBANO | UKUILUA / CUADRA BORDA / BORDE<br>LASTATEGIA / PAJAR | 452<br>82,97 | 26 | Aireko elektrikoa-1m Aérea Eléctrica-1m<br>5 | 20/01/17 | 12:45 |
| 3 | AYUNTAMIENTO DE LEGUTIO | 3 | 607 | LEGUTIO | ETZE-LARREA / ERIAL A PASTOS | | 25,17 | | | 20/01/17 | 13:30 |
| 29 | AYUNTAMIENTO DE LEGUTIO | 3 | 205 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 3849 | 54 | Aireko telefonikoa-1m Aérea Telefónica-1m<br>18 | 20/01/17 | 13:30 |
| 48 | AYUNTAMIENTO DE LEGUTIO | 1 | 1134 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 3536,25 | | | 20/01/17 | 13:30 |
| 56 | AYUNTAMIENTO DE LEGUTIO | 3 | 597 | LEGUTIO | BASO GARAIA / MONTE ALTO | | 1392 | | | 20/01/17 | 13:30 |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.11.25 06:42:41 Z